



ORIOKUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2012ko urtarrilaren 30a, astelehena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:05

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Miriam Uranga Egurza eta Jokin Izagirre Zabala.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Udalbatzar honetako gai zerrenda irakurri aurretik, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta bertaratuei proposatzen die gai zerrendako 8. gaia, lapurtutako haurrei buruzko adierazpen instituzionala onartzeari buruzkoa, beste gaien aurretik eztabaidatzea.

Noemi Ostolazak egindako proposamena bozkatu egiten da eta **AHO BATEZ** onartzen da [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

Miriam Uranga alkateordeak hartzen du hitza, Orain talde politikoaren izenean, eta bertaratuei proposatzen die mahai gainean uztea gai zerrendako 3. eta 4. gaien azterketa eta eztabaida (Udalaren 2012ko aurrekontua onartzeari buruzkoa, bata; eta plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeari buruzkoa, bestea), bi gai horiek arretaz aztertzeke denbora gehiago izateko.



Udalbatzarrak bozkatu egiten du Miriam Urangak egindako proposamena eta onartu egiten du, **BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**].

Gai-zerrenda

- 1.- 13/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri ematea. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentro bat instalatzeko handitu eta berritzeko obren proiektu aldatua, 518.250,93 euroko aurrekontua daukana (BEZ barne).
- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2012ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko langileen ordainsarien gehikuntza.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2011ko abenduaren 15eko 6/2011 zenbakidun osoko bilkuran, onartutako oharrak kontuan hartuz egindako egokitzapenak jasotzen dituen.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalak taldea osatzea Azkoitia, Zarautz, Urretxu, Orereta (Errenteria) eta Ormaiztegiko udalekin, KUTXAREN gobernu organoak aukeratzeko.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoak sustatutako Orioko Udalaren Adierazpen Instituzionala, lapurtutako haurren ustezko sarea dela-eta.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Bildu talde politikoak aurkeztutako mozioa, KUTXABANKEKO Kontseilari Nagusiak izendatzeari buruz.
- 10.- Jokin Izagirre Zabala zinegotziak (Orain) bere karguari uko eginez aurkeztu duen idatziaren berri ematea.
- 11.- Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK SUSTATUTAKO ORIOKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, LAPURTUTAKO HAURREN USTEZKO SAREA DELA-ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzional horrek honela dio, hitzez hitz:

Euskal Autonomia Erkidegoan 50eko hamarkadatik 90eko hamarkadara bitartean administrazio-irregularitasun batzuk izan zirela-eta, jaioberrien bidegabeko jabetzeen edo adopzio irregularren susmoa dago.

Gipuzkoa kaltetu gehien dituen lurraldea da, eta ustezko traman Gipuzkoako 20 ospitale zeudela susmatzen da. Hori dela-eta, Gipuzkoako Batzar Nagusiek kaltetuen elkarte batzuk gonbidatu zituzten, argudioak eta kezak azal zituzten, 2011ko irailaren 26an, Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean.

Batzorde hartan, SOS Bebés Robados-Euskadi eta ANADIR elkarteetako ordezkariak izan ziren. Ikertzen ari diren zenbait kasuren egoera azaldu zuten, eta dokumentazioa banatu zuten; eta Batzar Nagusiei dituzten helburuetan laguntzeko eskatu zieten.

Jaioberrien lapurreten balizko auzian azken egunotan hainbat gertakari izan dira, hala nola gorpuak hobitik ateratzea eta Gipuzkoako ospitale eta kliniketako ikerketak. Hori kontuan izanda, erakunde-adierazpen hau egin dugu.

ORIOKO UDALEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA, LAPURTUTAKO HAURREN AUZIARI BURUZKO LAGUNTZA-ESKAERARI ETA LANKIDETZARI BURUZKOA

Komunikatu honen bidez, Orioko Udalak elkartasun osoa adierazten die jaioberrien lapurreten eta adopzio ilegalen kasuetako familiei.

Kaltetuek aldarrikatzen duten egia jakiteko eskubideari dagokionez, alegia, senitartekoek desagertutakoen norakoaren berri izateko eskubideari dagokionez, Orioko Udalak uste du agintariek eskubide hori bermatzeko obligazio politikoa dutela, zehazki, eskumena duten tokiko, lurraldeko, erkidegoko nahiz estatuko agintariek.

Orioko Udalak euskal erakunde guztiei eskatzen die, eta bereziki Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die behar diren eta haien esku dauden neurri guztiak hartzeko aipatutako elkarteek eskatzen duten egia-eskubidea bermatzeko.



Orioko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, beste neurri batzuen artean, kaltetuentzako aholkularitza-zerbitzu bat sortzeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, Berdintasun Politiken, Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Batzordean hasi dituzten lanekin jarraitzeko konpromisoa hartzea, harik eta egitateak argitu arte.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EAJ talde politikoak sustatutako Orioko Udalaren adierazpen instituzionala, lapurtutako haurren ustezko sarea dela-eta, goian jasota dagoen bezalaxe.

1.- 13/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 13/2011 kreditua aldatzeko espedientea 2011ko abenduaren 30eko 491/2011 alkate-dekretuz onartu da, toki-jaurbidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenek alkateari ematen dizkioten eskumenak erabiliz eta, bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27. eta 29. artikuluetan ezarritakoa betez. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 152.071,89 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUN ELKARTEAREN UDAL INSTALAZIOAK ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTRO BAT INSTALATZEKO HANDITU ETA BERRITZEKO OBREN PROIEKTU ALDATUA, 518.250,93 EUROKO AURREKONTUA DAUKANA (BEZ BARNE).

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proiektu aldatuaren aurrekontua 4.311.510,48 eurokoa da (BEZ barne) eta, beraz, proiektuaren hasierako aurrekontuari egin zaion gehikuntza 518.250,93 eurokoa da (BEZ barne).

Udal arkitektoak txostena egin du proiektu aldatuari buruz. Proiektuaren aldaketak interes publikoko arrazoiengatik egin dira, ondoren zerrendatzen diren aurreikusi gabeko behar eta arrazoiengatik: 1.- Zimenduak indartzea. 2.- Saneamenduaren punpaketa. 3.- Entrenatzeko aretoa. 4.- Instalazioaren gestio integrala. 5.- Pantalana eta beste ekipamendu batzuk tokiz aldatzea. 6.- Egoitza sozialaren aurreinstalazioak.



7.- Balorazio aretoaren aire egokitua; kreditatuta dago proposatutako aldaketa horren beharra.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako boto emango duela, formari eta fondoari dagozkion arrazoiengatik:

- 2011ko uztailleko batzorde informatzailean obra horiek egiteko proiektu aldatuaren aldeko diktamena eman zen eta orain, sei hilabete beranduago, orduko proiektu aldatu hura aldatu egin da berriro, partida edo obra-unitate batzuen kostua murrizteko (guztira, 200.000 euroko murrizketa, guztirako aurrekontuan). Murrizketa horien justifikazioa, gutxienez, diskutigarria da eta, EAJren ustez, obrak behar bezala bukatu gabe geratuko dira horrela.
- Bere talde politikoak faltan bilatzen du Udaleko kirol teknikariaren txosten bat izatea, beren ustez udal arkitektoak baino iritzi oinarrituagoa baitauka gai honi buruz.
- Hortaz, EAJk proposatzen du batzorde informatzaileak 2011ko uztaillean diktaminatutako proiektu aldatua bozkatzea.

Alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei azaltzen die zein izan den proiektu aldatuaren orain arteko tramitazioa. Adierazten du egin diren aldaketak kontzeptuzkoak direla eta, horiek egiteko, arraun elkarteko arraunlariekin kontrastatu dela gaia. Azkenik, dio aldaketa horiek 200.000 euro aurrezteka ekarri dutela (BEZ aparte) eta, obra osoaren aurrekontuari begira asko ez bada ere, garrantzitsua dela.

Kirol batzorde informatzaileko buru Bixente Lasak (Bildu) hartzen du hitza eta bat egiten du alkateak adierazitakoarekin eta berriro esaten du, hark bezala, proiektuan egindako aldaketa guztiak Orioko Arraunketa Elkartearekin adostu direla aldeztu aurretik.

Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileko buru Amaia Dorronsorok (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du Udalak, bere jardunean, eraginkortasun irizpideen arabera jokatu behar duela eta, hortaz, neurriak hartzea dagokiola, udal obrak beharrezko zorrotasunez egiteko eta behar bezala bukatzeko, zerbitzuak jendeari zabaldu aurretik.

Jokin Izagirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du Arraunketa eta Piraguismoko teknifikazio zentroaren obrak behar bezala bukatuko direla eta Udalak diru dezente aurretuko duela exekuzio materialeko aurrekontuan.

Azkenik, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du aipatutako kirol zentro hori ez dela zeharo bukatuta geratuko.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, espedienteko agiriak aztertu ondoren, idazkariaren txostena ikusita eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Dekretuaren 110. artikulua eta bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat eginez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Etxeberria (EAJ) eta Cotado (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko Arraunketa Elkarteko udal instalazioak arraun eta piraguismoko teknifikazio zentro bat bertan instalatzeko handitu eta berritzeko obrak exekutatzeko proiektu aldatua eta **HASIERA EMATEA** obra horien kontratua aldatzeko espedienteari. Proiektuaren aurrekontua 4.311.510,48 eurokoa da (BEZ barne) eta, beraz, proiektuaren hasierako aurrekontuari egin zaion gehikuntza 518.250,93 eurokoa da (BEZ barne).

2.- AUDIENTZIA EMATEA kontratistari, bost eguneko epean, onartutako aldaketa-proposamenaren berri emateko, alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2012KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Miriam Uranga alkateordearen (Orain) proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA, ONARTU GABE, Orioko Udalaren 2012ko Aurrekontu Orokorraren eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal arauaren azterketa, eztabaida eta onarpena.

Hori guztia, gai horiek arretaz aztertzeko denbora gehiago izateko.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2012KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Miriam Uranga alkateordearen (Orain) proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsorro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI ABSTENTZIO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA, ONARTU GABE, Orioko Udalaren 2012ko Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren azterketa, eztabaida eta onarpena.

Hori guztia, gai horiek arretaz aztertzeko denbora gehiago izateko.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO LANGILEEN ORDAINSARIEN GEHIKUNTZA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamenaren arabera, Orioko Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen ordainsariak %2,4 gehituko dira 2011koekiko, bai oinarrizko ordainsariei dagokienez (antzinatasuna bakarrik) eta bai ordainsari osagarrii dagokienez (osagarri espezifikoa eta osagarri pertsonalak bakarrik); hala ere, Orioko udal administrazioa modernizatzeko, zerbitzu publikoak arrazionalizatzeko eta produktibitatea hobetzeko fondoa gehiago gehituko da (hiru kontzeptu horietan egindako gehikuntza, guztira, 2011ko Espainiako KPIa adinakoa izango da).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Orioko Udaleko funtzionarioen eta lan-kontratudunen ordainsariak %2,4 gehitzea 2012an 2011koekiko, bai oinarrizko ordainsariei dagokienez (antzinatasuna bakarrik) eta bai ordainsari osagarrii dagokienez (osagarri espezifikoa eta osagarri pertsonalak bakarrik); hala ere, Orioko udal administrazioa modernizatzeko, zerbitzu publikoak arrazionalizatzeko eta produktibitatea hobetzeko fondoa gehiago gehituko da (hiru kontzeptu horietan egindako gehikuntza, guztira, 2011ko Espainiako KPIa adinakoa izango da); areago, kontuan izanda osagarri espezifikoak izaera objektiboa duela, lanpostuari lotuta dagoelako zuzenean, kontuan izan gabe zein den titularra, eta osagarri espezifiko horren bidez ordaintzen direla lanpostu batzuen baldintza partikularrak, kontuan hartuz beren zailtasun tekniko berezia, dedikazioa, bateraezintasuna, ardura, arriskua edo penosotasuna.

2.- APLIKATZEA udal erabaki hau, aplikagarri den neurrian, beren kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten Orioko udalbatzako kideei.



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN NAGUSIA, EUSKADIKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAK, 2011KO ABENDUAREN 15EKO 6/2011 ZENBAKIDUN OSOKO BILKURAN, ONARTUTAKO OHARRAK KONTUAN HARTUZ EGINDAKO EGOKITZAPENAK JASOTZEN DITUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia Orioko Udalak sustatu du eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dute, behin Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2011ko abenduaren 15ean egindako 6/2011 osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez egindako oharretatik eratorritako egokitzapenak sartuta; egokitzapen horiek 2011ko abenduak data daukan "Bigarren Dokumentu Osagarria" izeneko dokumentu urbanistikoan gauzatu dira.

Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordearen idazkariak ziurtagiri administratibo bat bidali du, Batzorde horrek 2011ko abenduaren 15ean Gasteizen egindako 6/2011 osoko bilkurak hartutako erabakia kreditatzen duena; ziurtagiri administratibo horrek honela dio, hitzez hitz:

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

CERTIFICO: Que, en la Sesión 6/2011 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 15 de diciembre se adoptó, por unanimidad de los asistentes que formaban la mayoría absoluta de los miembros el siguiente acuerdo:

1.- En materia de Ordenación del Territorio

1.- Informar favorablemente el Plan General de Ordenación Urbana de Orio desde los aspectos cuyo carácter de informe es vinculante de acuerdo con lo señalado en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1 990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco; y en la Ley 5/1 993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, con los siguientes condicionantes:

a) Se deberá posibilitar sobre el ámbito educativo de Hondartza un incremento de la edificabilidad de 1.500 m² de techo.

b) Las previsiones portuarias recayentes en las zonas MA-1 -2 del Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas deberán remitirse a las determinaciones que se establezcan en el futuro Plan Territorial Sectorial de Puertos, tal y como se establece en el artículo 19 del PTS de Zonas Húmedas aprobado definitivamente mediante Decreto 160/2004, de 27 de julio.

c) Se corregirá y actualizará el expediente en lo que son determinaciones ejecutadas y previstas.



2.- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

II.- En materia de Patrimonio Cultural

La Dirección de Patrimonio Cultural, en su informe de 2 de diciembre de 2011, informa favorablemente el expediente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1. El Camino de Santiago está calificado como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental según Resolución 14/2000, de 25 de enero (BOPV 11 de febrero). Dicho expediente de calificación ha sido revisado mediante Resolución de 29 de julio de 2010 del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el citado expediente. En los Anexos a la Resolución se contempla pormenorizadamente el trazado y la protección necesaria de los elementos afectos al Camino, encontrándose entre ellos los siguientes elementos ubicados en el término municipal de Orio:

Calzada de Aganduru

Camino Txerritxutu- Muniota

Ercita de San Martín de Tours. Protección media

Conjunto Monumental de la Nueva Cerámica de Orio. Protección media

72.1. Laboratorio,

72.3. Nave

72.2 .Oficinas

Según el Art. 12.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, el otorgamiento a un bien de la condición de calificado determinará la eficacia inmediata del régimen de protección que conlleva dicha calificación. Redundando en lo anterior, el Art. 28 de la Ley 7/90 de Patrimonio Cultural Vasco dispone que los bienes inmuebles calificados deberán ser conservados con sujeción al régimen de protección y a los instrumentos de planeamiento urbanístico, que deberán ajustarse a aquél.

Por lo tanto, en base al Art. 12.2 y al Art. 28 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, para los elementos arriba mencionados deberá sustituirse la regulación establecida en el Título V "Normas de protección del patrimonio catalogado" del PGOU de Orio por las disposiciones del régimen de



protección del Camino de Santiago. Así mismo, deberá grafiarse el trazado del camino a su paso por el término municipal, en el plano V1 "Catalogo", recogiendo los elementos omitidos y afectos al mismo.

2. Se debe reformar la normativa de forma que queden claras y no den lugar a equívoco las protecciones y actuaciones derivadas de las declaraciones de Zonas arqueológicas con expediente como Bien Cultural Calificado y las Zonas de Presunción Arqueológica.

III.- En materia de Aguas:

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe de 11 de octubre de 2011 informa favorablemente, con la excepción del equipamiento socio cultural propuesto en zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo terrestre, el "Plan General de Ordenación Urbana de Orio" de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante en la línea de lo señalado anteriormente:

El ayuntamiento deberá solicitar un escrito de conformidad del ente gestor del saneamiento y el abastecimiento del municipio (Consortio de Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak) donde se justifique la suficiencia de las redes de saneamiento locales para recoger y tratar las nuevas cargas derivadas de los desarrollos previstos así como la suficiencia del recurso para satisfacer las nuevas demandas. Dicha conformidad debe incorporarse de modo previo a la aprobación definitiva del PGOU.

Todas las actuaciones que afecten al Dominio Público Hidráulico o a sus zonas de servidumbre y policía, así como a las zonas de servidumbre de protección del dominio público marítimo terrestre deberán contar, previamente al inicio de cualquier trabajo u obra, con las autorizaciones de esta Administración Hidráulica que deberán ser tramitadas ante las Oficinas de las Cuencas Cantábricas Orientales de esta Agencia Vasca del Agua- URA.

Se informa desfavorablemente el equipamiento sociocultural propuesto en el Ámbito 11 Hondartza, en cuanto se trate de un edificio y otras instalaciones anejas, como se afirma en el informe del Servicio Provincial de Costas de Gipuzkoa. Tal y como ya hace notar el Informe de Costas, URA, que es la administración competente en las autorizaciones de obras en zona de servidumbre de protección del DPMT, advierte de que estos usos no se encuentran entre los que, con carácter ordinario, pueden permitirse en estas zonas. Por lo que el equipamiento previsto no es autorizable, en aplicación de la Ley de Costas.

IV.- En materia de Desarrollo Rural y Litoral:



La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, en su informe de 7 de diciembre de 2011 informa favorablemente el expediente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación de carácter vinculante:

Regulación de edificaciones e instalaciones de las explotaciones ganaderas.

La referencias hechas en la documentación del PGOU de Orio al Decreto 14 1/2004, de 6 de Julio, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas deberán realizarse al Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas, al que debe adaptarse la regulación establecida en el PGOU de Orio.

V.- En materia de Biodiversidad y Participación Ambiental:

La Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental, en su informe de 5 de diciembre de 2011 informa favorablemente el expediente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación de carácter vinculante:

Deberán eliminarse del PGOU las propuestas para el ámbito 12. Kaia incompatible con el PTS de Zonas Húmedas, salvo que estén contempladas en un plan especial aprobado inicialmente, en cuyo caso se mantendría la recomendación con carácter no vinculante.

IV. Incorporar al expediente los informes emitidos por la Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo 1); de URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo II) y su informe complementario (Anexo III); de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral (Anexo IV) de la Dirección Biodiversidad y Participación Ambiental (Anexo V) de la Dirección General de Sostenibilidad de la Costa y el Mar (Anexo VI) de la Dirección de Suelo y Urbanismo (Anexo VII) y de la Dirección de Puertos y Aeropuertos (Anexo VIII), que se acompañan a la presente certificación.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **HAMAIIKA ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia, Orioko Udalak sustatu duena eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek eta Mikel Iriondo abokatuak idatzi dutena, behin Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 2011ko abenduaren 15ean egindako 6/2011 osoko bilkuran hartutako erabakiaren



bidez egindako oharretatik eratorritako egokitzapenak sartuta; egokitzapen horiek 2011ko abenduko data daukan "Bigarren Dokumentu Osagarria" izeneko dokumentu urbanistikoan gauzatu dira.

2.- BIDALTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Departamentura erabaki hau kreditatzen duen ziurtagiri administratiboaren lau ale, udal idazkariak sinatuak; ziurtagiriarekin batera Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren 'Bigarren Dokumentu Osgarria' izeneko dokumentu urbanistikoa bidaliko da, behar bezala diligentziatua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, dagozkion legezko eta arauzko tramiteak eginda, behin betiko onarpena eman diezaion Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 91.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta bere desadostasuna agertzen du, forma arrazoiengatik, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari dagokion espediente urbanistikoaren tramitazioagatik; desadostasuna agertzen du, baita ere, Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2011ko abenduaren 15eko osoko bilkuran ezarritako b) baldintzarekin (Itsas Etxe ondoan 'beteranoentzako' ontziraleku txiki bat egiteari dagokiona).

Alkateak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak, aldeko botoa ematerakoan, ez duela kuestionatu Orioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren edukia; baizik eta mugatu dela, bakar-bakarrik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Zuzendaritzak ezarritako baldintza betetzera, behar den egonkortasuna ziurtatze aldera.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAK TALDEA OSATZEA AZKOITIA, ZARAUTZ, URRETXU, ORERETA (ERRETERIA) ETA ORMAIZTEGIKO UDALEKIN, KUTXAREN GOBERNU ORGANOAK AUKERATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamena alkateak egin du, Bilduren izenean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2012ko urtarrilaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:



1.- EZ ONARTZEA Orioko Udalak udal taldea osatzea Azkoitia, Zarautz, Urretxu, Orereta (Errenteria) eta Ormaiztegiako udalekin, Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxako gobernu organoak aukeratzeko.

2.- JAKINARAZTEA udal erabaki hau Kutxaren Hauteskunde Batzordeko buruari, jakin dezan eta horren arabera joka dezan, aurkez ditzakeen lege-errekurtsoak azalduz.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, KUTXABANKEKO KONTSEILARI NAGUSIAK IZENDATZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Gipuzkoako Kutxako Administrazio Kontseiluak aukeratu du sortu berri den KUTXABANK erakundearen ordezkari berria. Ekintza hori dela-eta, Gipuzkoako Kutxari zegokion ordezkari murriztu egin da; hortaz, baita gipuzkoar guztioi zegokiguna ere. Hori dela-eta, Orioko Udaleko Bilduko batzarkideok honako MOZIOA aurkeztu dugu eztabaidatu eta onartzeko:

1.- GURE ARBUIOA agertu nahi dugu eratutako Administrazio Kontseilu berria soilik bi indar politikoekin (PP eta PNV) osatu delako, eta gainerako indar politikoak baztertu egin direlako. Hala, bakarrik bi partidu politikoek izango baitute Kutxabank erakunde berriaren kontrol eskusiboa.

2.- ESKATZEN DUGU mantendu dadila Kutxabank ahalbidetzea posible egin zuen adostasuna, zeina hiru Kutxetako Biltzarrek babestu zuten, joan den irailean, hain zuzen. Kotsentsu hark hobesten baitzuen euskal gizartearen eta bere errealitate instituzionalaren askotariko ordezkari proportzional eta adierazgarriari egin behar diola leku Kutxabankek. Hala, gure gizarte eta lurraldearen zerbitzura egongo den erakundea izango baita Kutxabank.

3.- Kutxako ordezkari zarekiko errespetua izan dezala EXIJITZEN DUGU eratu berri den Kutxabanki; hain zuzen ere, joan den irailean, Kutxetako Biltzarretan adostu eta onartutako parametroen arabera. Beraz, ez dadila gauzatu ordezkarien murrizketarik, asko kaltetzen baitira bai Kutxa, baita Gipuzkoako herritarrak ere.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako boto borobila emango diola mozioaren onarpenari. Segidan, gai horrek orain arte egin duen bidea azaltzen du eta adierazten du lehen 'sagrifikatua' EAJ alderdia izan zela, kontseilarien kopurua 18tik 10era murriztea proposatu zuenean; gogorarazten du Bilduk onartu egin zuela murrizketa hori.

Alkateak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa emango diola mozioaren onarpenari, salatu egin nahi dutelako Bildu KUTXABANKeko gobernu organoetatik kanpo utzi izana, kontuan hartu gabe 2011ko



maiatzaren 22ko udaletarako eta batzar nagusietarako azken hauteskundeetan Gipuzkoan Bilduk lortu zuen ordezkari-tza instituzionala.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Bildu talde politikoak KUTXABANKeko Kontseilari Orokorren izendapenari buruz aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- JOKIN IZAGIRRE ZABALA ZINEGOTZIAK (ORAIN) BERE KARGUARI UKO EGINEZ AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Udaleko idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du **JOKIN IZAGIRRE ZABALAK** (ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA –ORAIN– zerrendako bigarrena 2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan, eta zinegotzi hautatua) idatzia aurkeztu duela, Udalbatzarrari zuzendua, eta bertan honako hau adierazten duela: **UKO EGITEN DIOLA** Orioko Udaleko zinegotzi karguari, familiako arrazoiengatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikuluan ezarritako prozedura betez. Idatzian Jokin Izagirre Zabalak eskatzen dio udalbatzarrari bere uko egitea onartzea eta ordezkoa izendatzea, Hauteskunde-Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarrak jakiten du, baita ere, **MIKEL ARANZABAL URBIETA**K (ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA –ORAIN– zerrendako hirugarrena 2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan) idatzi bat aurkeztu duela **UKO EGINEZ**, laneko arrazoiengatik, Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izateari Jokin Izagirre Zabala ordezkatzeko.

Udalbatzarrak, bestalde, **JOSE ANGEL IPARRAGIRRE ALBERDI**K aurkeztutako idatziaren berri jaso du. Jose Angel Iparragirre Alberdi ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA –ORAIN– zerrendako laugarrena zen 2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan eta, idatzi horren bidez, **ONARTU EGITEN DU** Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea, Jokin Izagirre Zabalaren ordezkari-tza, ORIOKO AUKERA INDEPENDENTEA –ORAIN– hautesle elkartearen ordezkatzeko, Hauteskunde Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera; adierazten



du, baita ere, ez zaizkiola aplikagarri Hauteskunde-Araubide Orokorreko Lege Organiko horren 6., 177. eta 178. artikuluetan jasotzen diren ezin aukeratua izateko arrazoiak. Hori guztia, Jose Angel Iparragirre Alberdiri Orioko Udaleko zinegotzi hautatu izaera aitortzen dion kredentziala emateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, indarrean dagoen araudian ezarritakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Jokin Izagirre Zabalak ORIOKO AUKERA INDEPENDIENTEA (ORAIN) hautesle elkartearen ordezkatuz betetzen duen Orioko zinegotzi karguari uko egitea eta honako bi idatzi hauen **JAKINAREN GAINEAN GERATZEA**: Mikel Aranzabal Urbietaren idatzia, Orioko Udaleko zinegotzi karguari uko eginez, eta Jose Angel Iparragirre Alberdiren idatzia, Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea onartuz, Jokin Izagirre Zabalaren ordez, ORIOKO AUKERA INDEPENDIENTEA –ORAIN– hautesle elkartearen ordezkatzeko.

2.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzeko ziurtagiria Madrilgo Hauteskunde Batzorde Zentralaren Presidenteari, Jose Angel Iparragirre Alberdiri Orioko Udaleko ORIOKO AUKERA INDEPENDIENTEA (ORAIN) hautesle elkarteko zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala eman dezan, kargu hori betetzeko, hutsik baitago Jokin Izagirre Zabalak aurkeztu duen eta Udalbatzarrak onartu dion kargu uzteagatik. Hori guztia, Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Alkateak hartzen du hitza eta eskerrak ematen dizkio Jokin Izagirreri, Orioko Udaleko zinegotzi gisa herritarren alde egindako lanagatik, eta adierazten dio Udaleko ateari zabalik izango dituela, laguntza eskaini nahi badu edota, inoiz, kargu politiko bat berriro bete nahi balu.

11.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du, batetik, gai-zerrendako 3. eta 4. gaiak mahai gainean utzi izanak balio behar lukeela Udalaren prozedura administratiboa hobetzeko. Bestetik, esaten du kultur teknikariaren lanpostuari lantsaioa murrizteko proposamena ‘sorgin-ehiza’ moduko bat iruditzen zaiela. Bukatzeko, adierazten du bere talde politikoa oso kezkatuta dagoela azken gai horrekin; areago, kontuan hartuta jarrera horrek segida izan dezakeela etorkizunean, badirudielako, gerora, lantsaioen murrizketa gehiago proposa daitezkeela beste udal lanpostuetan, udal gobernua daraman taldeak ez baditu gogoko momentu honetan lanpostu horiek betetzen dituzten langileak.

Aipamenengatik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du planteatzen dena ez dela, besterik gabe, kultura teknikariaren lanpostuaren lantsaioa murriztea, baizik-eta



hori arrazoituta dagoela, bere funtzioak ere hein berean murriztu direlako (esate baterako, gaur egun ez dira egiten ez Txuleta eguna eta ez Erreboiloaren eguna, eta lanpostuaren funtzioak egokitu egin dira). Esaten du, baita ere, Udalak baduela ahalmena hori egiteko, eraginkortasun printzipioetan oinarrituta eta Udalaren giza baliabideak ahalik eta egokien erabiltzeko. Adierazten du, bestalde, EAJK esaten duena —lansaioren murrizketa gehiago proposa daitezkeela beste udal lanpostuetan, udal gobernuaren daraman taldeak ez baditu gogoko momentu honetan lanpostu horiek betetzen dituzten langileak— guztiz faltsua dela.

Bestalde, alkateak adierazten du Bilduk oso garbi daukela EAJK ez duela izan inolako borondate politikorik berekin biltzeko, 2012ko udal aurrekontuaren proiektua eztabaidatu eta adosteko.

Amaia Dorronsoro zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du kontu honetan jarrera desberdinak daudela; adierazten du, baita ere, Udalaren giza baliabideak optimizatzeko lana egin beharra dagoela.

Jon Agirresarobe zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta adierazten du argitu nahi lituzkeela EAJK joan den igandeko Diario Vasco egunkariko herriko kronikan egindako intsinuazioak. Adierazten du kultur teknikariaren lanpostuaren lansaioa murrizteko proposamena ez dela 'sorgin-ehiza' bat edo antzeko ezer, baizik eta Udalaren giza baliabideak optimizatzeko ahalegin bat.

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ez dituela jasotzen Kontu-hartzaitza Zerbitzuak hileroko egindako ordainketen zerrenda eta hileroko alkate-dekretuen zerrenda. Alkateari eskatzen dio, hortaz, gaiari heltzeko eta informazio hori hileroko banatzeko.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei exijitzen die aurrerantzean ez egiteko interpretazio politiko subjektiborik, esate baterako, batzorde informatzaileak egiteko ordutegiari dagokionez.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuek hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,